



LH-6. MAILA  
4. UNITATE DIDAKTIKOA  
"Ez naiz bakarrik bizi"



LH6-4UD.EZ NAIZ BAKARRIK BIZI: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Helburua, maitasuna identifikatzea da. Horretarako, maitasuna gure eguneroko bizitzako jarreraren eta portaeren bidez agerian jartzen dela konturatzea. Benetako maitasunaren adierazpenak identifikatzen eta hautematen ikastea da kontua, harreman positibo eta onuragarriak identifikatuz eta bultzatuz, eta harreman kaltegarriak eta suntsigarriak antzemanez eta baztertuz.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETAK
<p><b>1. Pertsonen arteko maitasun- eta afektibitate- harremanak aztertzea eta balioestea.</b> Ikasleen bizi-esperientziak behatu eta aztertu, maitasuna (maitasuna, adiskidetasuna, eta abar.) sentitzen, antzematen, ikusten, aitortzen, igartzen, nabaritzen dela konturatzeko. Baita maitasun falta ere.</p>	<p><b>1. Maitasuna.</b> Ikasleek ondo antzeman dute maitasuna adierazten duten portaerak? Eta benetako maitasuna sustatzen ez duten jokabide eta pentsaerak? Zeintzuk ez? Zergatik? Neskek zein mutilek aukeraketa berbera egin dute? Zer alde dago erantzunen artean? Zergatik?</p>	<p>→ <b>Maitasuna, adiskidetasuna, lankidetasuna, elkartasuna...</b> Izen eta izan asko ditu. On egiten badigute, gu eta gure bitzita hobetzen badute, denak dira maitasuna. Guztiak dira onak eta beharrezkoak.</p> <p>→ <b>Maitasuna, berdintasunezko harremana eta bizikidetzeta.</b> Eskubide, aukera eta tratu berbereko harremanak.</p>
<p><b>2. Tratu onak eta maitasuna adierazten duten jarrera eta portaerak identifikatu, onartu eta garatu</b> (onarpena, errespetua, konpainia, poza, komunikazioa, gozotasuna, eskuzabaltasuna...). <b>Maitasun falta adierazten duten jarrera eta portaerak identifikatu, aitortu eta saihestu</b> (gaitzespena, burla, bakardadea, tristura, haserrea, isolamendua, borroka, jelsokorkeria, norberekeria, kontrola, indarkeria...).</p>	<p><b>2. Lagunak.</b> Ikasleek ondo aukeratu dituzte lagun onak antzemateko irizpideak? Zeintzuk ez? Zergatik? Nola landu dezakegu hutsune hori? Neskek zein mutilek aukeraketa bera egin dute? Ez? Zein da alde? Zergatik? Nola landu dezakegu hori? Zailtasunak izan dituzte lagun onen zerrenda edota beraien maitasun sarea osatzeko? Sexu eta adin guztietako pertsonak aukeratu dituzte? Neskek eta mutilek berdin? Ez? Zergatik?</p>	<p>→ <b>Maitasuna, Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.</b> Berdintasuna eta askatasuna, errespetua eta aniztasuna elkarbizitzan.</p> <p>→ <b>Maitasuna, askatasuna eta tratu onak.</b> Hobeto bizitzeko harremanak. Ondo sentitzeko eta ondo bizitzeko bizikidetzeta.</p> <p>→ <b>Maitasuna, nork bere bidea.</b> Nork bere bitzita proiektua garatzeko elkarbizitza, besteen errespetuz eta elkarrenganako laguntzaz.</p>
<p><b>3. Familia egunero eraikitzen da. Etxeko maitasuna egunero indartzen edo ahultzen da.</b> Familia barruko maitasuna ez da berez sortzen eta garatzen. Senideen pentsaerek, jarrerak eta portaerak sortu eta garatzen dute. Guztion ardura eta eginbeharra da.</p>	<p><b>3. Familia.</b> Neskek eta mutilek maitasuna adierazteko egoera berberak aukeratu dituzte? Zeintzuk ez? Zergatik? Zer adierazten du horrek? Alde handia dago oraingo eta etorkizuneko familiaren arteko maitasun egoeretan? Zergatik? Aldea dago nesken eta mutilen erantzunen artean? Zergatik?</p>	<p>→ <b>Maitasun sare handia behar dugu hobeto bizitzeko.</b> Maitasuna ez da handitzen maitasun (harreman on) bakarrena denean. Alderantziz, zenbat eta harreman on gehiago, orduan eta handiagoa eta hobeagoa egiten da.</p>

→ Maitasunak on egiten digu. Kalte edo min egiten badigu, ez da maitasuna.

→ Beldurra badago, ez dago maitasunik. Beldurra badago, laguntza eskatu.